



LEZOKO AUZO KONPOSTAJEAREN JARRAIPENA. 2020ko EMAITZEN AURKEZPENA

1. LEZOKO AUZOKONPOSTA

2. GUNEEN EGOERA

3. KOMUNIKABIDEAK

4. HOBKUNTZAK

5. JARRAIPEN BISITAK

6. 2021eko EGUTEGIA

7. GOGORATU

1. LEZOKO AUZOKONPOSTA

Lezon, 5 gune dauzkagu
AUZOKONPOSTA egiteko:

- 1- Altamira
- 2 - Andreone
- 3 - Aralar
- 4 - Arretxene
- 5 - Lopene

3.

Altamirako gunean, betiko 300 L-
tako konpostagailuak daude (20).

Beste 4 guneetan, berriz,
konpostagailuak aldatu dira eta,
egun, 700 L-takoak (6 eta 9 artean,
gunearen arabera)



Lezoko
auzokonposta

1. LEZOKO AUZOKONPOSTA

2. GUNEEN EGOERA

3. KOMUNIKABIDEAK

4. HOBEKUNTZAK

5. JARRAIPEN BISITAK

6. 2021eko EGUTEGIA

7. GOGORATU

2. GUNEEN EGOERA

Altamirako egoeran ez da aldaketarik egon, betiko 20 300L-tako konpostagailuak daude eta 6 erabiltzaile, 5 taldeetan antolatuta.

5 taldeen artean, 12 konpostagailu erabiltzen dituzte (5 martxan eta 7 heltzen). 8 konpostagailu erabili gabe daude.

5.

Gunearen kokapena eta egoeren alderaketa



2020ko
EGOERA -
ALTAMIRA

Andreonen ere ez da aldaketarik egon eta 2019ko abendutik 8 700L-tako konpostagailuak daude eta 20 erabiltzaile, 2 taldeetan antolatuta (A eta B).

2019ko abendua baino lehen, 6 konpostagailu egoten ziren.

Gunearen kokapena eta egoeren alderaketa



Ekainean gune aldaketa egin zen. 300Ltako konpostagailuak kendu eta 700L-koak jarri ziren. Horrela, bertako 13 erabiltzaileak 10 taldeetan antolatuta egotetik 3tara pasa dira (A, B eta C) eta benetako konposta komunitarioa egiten hasi dira.



Gunearen kokapena eta egoeren alderaketa



Kapazitate arazoak zeudela eta, ekainean 3 konpostagailu gehiago jarri ziren eta, horrela, 6 izatetik 9 izatera pasa zen (700L)

Talde bakoitzak (Ak, Bk eta Ck) 3 konpostagailu ditu. Heltzen dauden konpostagailuek prozesua bukatzeko denbora gehiago dute.



Gunearen kokapena eta egoeren alderaketa



Gune honek arratoiekin zeukan arazoa konpontzeko asmoz, 20 konpostagailu zaharrak kendu ziren eta, udaran zehar, garbiketa egin zen. Ondoren, 6 konpostagailu handi jarri ziren (700L) Horrela, bertako 13 erabiltzaileak, egun, 3 taldeetan antolatuta daude (A, B eta C)

Aldaketa honekin, gune honetako erabiltzaileak ere benetako konposta komunitarioa egiten hasi dira.

Gunearen kokapena eta egoeren alderaketa



1. LEZOKO AUZOKONPOSTA

2. GUNEEN EGOERA

3. KOMUNIKABIDEAK

4. HOBEKUNTZAK

5. JARRAIPEN BISITAK

6. 2021eko EGUTEGIA

7. GOGORATU

Bisitak hasi baino lehen, EGUTEGIA eta “GOMENDIOAK eta IRTENBIDEAK” orriak zintzilikatu ziren.

2020an, 2019an baino 2 jarraipen bisita gehiago burutu dira. 8 bisita egin dira guztira: otsaila, apirila, maiatza, ekaina, uztaila, abuztua (iraila hasieran), urria eta abenduan.

Horrela, urteko tenperatura handieneko hilak prozesuari bultzada bat emateko aprobetxatu dira.

Informazio kartela

KONPOSTAJEAREN JARRAIPENA 2020 SEGUIMIENTO DEL COMPOSTAJE 2020



EGUTEGIA CALENDARIO

OTSAILAK 27 / 27 FEBRERO

APIRILAK 30 / 30 ABRIL

MAIATZAK 28 / 28 MAYO

EKAINAK 25 / 25 JUNIO

UZTAILAK 23 / 23 JULIO

IRAILAK 3 / 3 SEPTIEMBRE

URRIAK 29 / 29 OCTUBRE

ABENDUAK 17 / 17 DICIEMBRE

ORDUTEGIA HORARIO

9:00 **ALTAMIRA**

9:45 **ANDREONE**

10:30 **ARALAR**

11:15 **ARRETXENE**

12:00 **LOPENE**

ZALANTZAK IZATEN JARRAITZEN BADUZU, TEKNIKARIARI GALDETU AHAL IZANGO DIOZU EZARRITAKO ORDUTEGIAN
SI TIENES DUDAS, ACÉRCATE AL ÁREA EN EL HORARIO MARCADO Y CONSULTA AL TÉCNICO

EGUTEGIAN ALDAKETARIK EGONEZ GERO, ALDEZ AURRETIK JAKINARAZIKO DA.

CUALQUIER CAMBIO SOBRE ESTE CALENDARIO SE AVISARÁ CON ANTELACIÓN.



www.konpostajearen@goi.eus
447 957 402 (WhatsApp)

“GOMENDIOAK ETA IRTENBIDEAK” dokumentuaren helburua erabiltzaileei konpostaje prozesua erraztea da.

Alde batetik, konpost on bat lortzeko gomendioak ematen dira.

Bestetik, bisitetan ikusitako arazoei koloretako gometxen bidez irtenbiderik egokiena erabiltzaileei jakinarazten saiatzen da.



Informazio kartela

GOMENDIOAK ETA IRTENBIDEAK
RECOMENDACIONES Y SOLUCIONES



- Zati txikiak utzi**
Depositar trozos pequeños
- Ondo nahastu**
Mezclar correctamente
- Oxigenazio on bat bermatu**
Asegurar una buena oxigenación
- Hezetasuna kontrolatu**
Controlar la humedad
- Ondo estalita utzi**
Dejar bien tapado

KONPOST ON BAT LORTZEKO, HAUEK DIRA JARRAITU BEHAR DITUGUN PAUSUAK:
PARA GARANTIZAR LA OBTENCIÓN DE UN BUEN COMPOST, DEBEMOS:

IDENTIFIKATUTAKO ARAZOEI AURRE EGITEKO, JARRAITU KOLORE KODEAK
PARA RESOLVER LOS PROBLEMAS IDENTIFICADOS, SEGUID LOS CÓDIGOS DE COLORES

KOLOREA COLOR	ARAZOA PROBLEMA	IRTENBIDEA SOLUCIÓN
○	Materia organikoaren falta Falta materia orgánica	Materia fresko gehiago bota Aumentar la aportación
●	Gehiegizko hezetasuna Exceso de humedad	Egituratzaila gehitu Añadir estructurante
●	Zati handiegia Trozos demasiado grandes	Zati txikiagoak bota Aportar trozos más pequeños
●	Aireztapen edo oxigenazioaren falta Falta de aireación u oxigenación	Maizago nahastu Mezclar con mayor frecuencia



NOBUPROD
CONTACTO

www.konpostlezu@gmail.com
647 067 402 (WhatsApp)

BISITAK BAINO LEHEN, prentsa ohar bat argitaratzen da herritarrei bisitaren berria helarazteko. Aldi berean, erabiltzaile guztiei WhatsApp eta email bidez bisita gogorarazten zaie.

BISITAK ETA GERO, bisitaren emaitzekin txostenak osatzen dira. Txostenak WhatsApp eta email bidez erabiltzaileei helarazten zaizkie.

-
1. LEZOKO AUZOKONPOSTA
 2. GUNEEN EGOERA
 3. KOMUNIKABIDEAK
 4. HOBEEKUNTZAK
 5. JARRAIPEN BISITAK
 6. 2021eko EGUTEGIA
 7. GOGORATU

Konpostaje prozesua errazteko eta guneak txukun mantentzeko asmoz, hainbat ekintza gauzatu dira:

- Konpostagailuen karteltxoan aldaketa (2020/06)
- Guneen kanpoko kartelen garbiketa eta harreman datuen eguneratzea (2020/06-2020/07)
- Aralar guneko konpostagailuen aldaketa (2020/06)
- Lopene gunearen garbiketa eta konpostagailuen aldaketa (2020/07-2020/09)

4. HOBKUNTZAK

16.

Hobekuntzak
ARALAR
(2020/06)

Urte hasieran zeuden 20 konpostagailu txiki (300L) kendu eta 9 konpostagailu handi (700L) jarri dira. Bolumen erabilgarria mantendu da, baina benetako auzo-konposta egiten hasi da.

Aurreko egoera



Egungo egoera



4. HOBKUNTZAK

17.


Hobekuntzak
ARALAR
(2020/06)

Talde bakoitzak 3 konpostagailu ditu: 1 martxan eta 2 heltzen. Txandaka erabiltzen dira.



Urte hasieran zeuden 20 konpostagailu txiki (300L) kendu eta 6 konpostagailu handi (700L) jarri dira. Bolumen erabilgarria baxuxeagoa da, gunearen erabilpenari egokituta.

Aurreko egoera




Gunea modu sakonean garbitzeko aprobe txatu da.

Egungo egoera



Momentuz, talde bakoitzak 2
konpostagailu ditu: 1 martxan eta 1
heltzen. Txandaka erabiltzen dira.



4. HOBKUNTZAK

20.

Konpostagailuen
karteltxoak
aldaketa

Hasieran, konpostagailuak identifikatzeko, paperezko karteltxoak jarri ziren, zintarekin lotuta. Nahiko iragankorrak zirenez, kapsulatutako karteltxoekin ordeztu dira, askoz iraunkorragoak.



Gainera, Andreone guneko erabiltzaile batek konpostagailuak pegatzen bidez zenbakitu ditu. Beste guneeetakoek zenbakiak errotulagailuz idatzita dauzkate.



4. HOBKUNTZAK

Denborarekin, guneetako karteletan aingira-belarra sortu da. Jarraipen bisita batean, garbiketa egin zen.



21.

Bestalde, aspalditik egiteke zegoen harreman datuen eguneraketa ere burutu da.



Kartelen garbiketa
Harreman datuen
eguneraketa

-
1. LEZOKO AUZOKONPOSTA
 2. GUNEEN EGOERA
 3. KOMUNIKABIDEAK
 4. HOBKUNTZAK
 5. JARRAIPEN BISITAK
 6. 2021eko EGUTEGIA
 7. GOGORATU

Konpostagailuen jarraipen bisiten helburua konpostaje prozesuaren bilakaera konprobatzea da.

2019an, 6 jarraipen bisita egin ziren, bi hilero. 2020an, berriz, beste 2 bisita gehitu dira. Horrela, urteko hilabete beroenak prozesuari pixka bat laguntzeko aprobetxatu dira.

Hala ere, erabiltzaileen parte-hartzea ezinbestekoa da eta erakusten duzuen jarrera eskertzekoa da. Azken finean, konpostajea ondo ibiltzea denon ardura da.

Jarraipen bisitetan, hainbat ekintza gauzatzen dira:

- Parametro fisiko-kimikoak neurtu: tenperatura, pH, hezetasuna
- Konpostagailuen betetze maila neurtu
- Nahasketaren egoera konprobatu. Arazoak baldin badaude, irtenbideak proposatzen dira

- Nahasketa aireztatu eta, beharrezkoa bada, egituratzailea gehitu
- Ondoren, konpostagailuaren balorazio orokorra egiten da
- Bukatzeko, erabiltzaileei balorazio txostena bidaltzen zaie

HARTUTAKO DATUAK

TENPERATURA: kanpokoia eta barrukoa (°C)

BETETZE MAILA & HEZETASUNA: %a

pH-a

ARAZOAK: eulia, materia freska azalean, nahasketa gutxi, usaina, zati handiak etab. BAI/EZ

GOMENDIOAK: gehiago nahastu, materia freskoa estali, gehiago zatikatu etab. BAI/EZ

MARTXAN (%43a)

OSO ONA: %17a (2019an, %9a)

ONA: %57a (2019an, %46a)

NAHIKO: %21a (2019an, %44a)

EZEGOKIA: %4a (2019an, %1a)

HELTZEN (%57a)

OSO ONA: %70a (2019an, %22a)

ONA: %22a (2019an, %62a)

NAHIKO: %5a (2019an, %11a)

EZEGOKIA: %2a (2019an, %5a)

Orokorrean, jarraipen bisitetatik oso balorzio ona atera daiteke, konpostagailu guztietan.

Gainera, 2019. urtekoekin alderatuta, balorzioak (askoz) hobeagoak izan dira, batez ere martxan dauden konpostagailuetan.

5. JARRAIPEN BISITAK

27.

Fisiko-kimikoa
(orokorra)

MARTXAN (%43a) Batezbesteko baloreak

HEZETASUNA: %82a (2019an, %80a)

pH-a: 6,7 (2019an, 7,35)

Tº: 30ºC (2019an, 25,1ºC)

HELTZEN (%57a) Batezbesteko baloreak

HEZETASUNA: %74a (2019an, %59a)

pH-a: 6,81 (2019an, 7,45)

Tº: 21ºC (2019an, 20,7ºC)

Orokorrean ez dago alde handirik 2019ko eta 2020ko datuen artean. Hala ere, tenperaturak ikusita, adibidez, 2020an hobexegoak izan dira, batez ere martxan dauden konpostagailuenak.

pHren baloreak antzekoak izan dira eta hezetasunarenak, zertxobait altuagoak 2020an 2019an baino.

Hezetasuna kontrolatzea konpostajearen erronkarik nagusienetako bat da. Oso garrantzitsua da %50 inguruan mantentzea. Ikusten den bezala, neurketa gehienak %70tik gora daude.



Hezetasuna kontrolatzeko, egituratzaile pixka bat gehiago erabili eta aireztapen on bat bermatu behar da.

BALOREAK

ALTUENA: %100a (2019an, %100a)

BAXUENA: %20-40a (2019an, %10a)

BATEZBEST.: %82a (2019an, %80a)



Heltzen dauden konpostagailuetan hezetasuna jaisten joan behar da, hezetasuna galtzea prozesuaren martxa onaren ondorio bat da eta. Aurten, batezbesteko hezetasuna nahiko altua izan da, seguruenik hasierako datu altuegi batetik zetozelako. Kasu hauetan ere, aireztapenekin jarraitu behar da nahiz eta maiztasuna baxuagoa izan behar.


BALOREAK

ALTUENA: %100a (2019an, %100a)


BAXUENA: %0-20a (2019an, %5a)

BATEZBEST.: %74a (2019an, %59a)

HEZETASUNAREN DISPERSIOA (HELTZEN)



HEZETASUNAREN BANAKETA (HELTZEN)





pH-aren datuak normaltasun osoz har daitezke batezbestekoa pH orekatu batekin bat datoz eta. Gainera, dispersioa oso txikia da. pH datu gehienak 7 inguruan daude, balore bat ezik eta baliteke irakurtze akatsa izatea, besterik ez.

BALOREAK

ALTUENA: 8 (2019an, 8)

BAXUENA: 4 (2019an, 6)

BATEZBEST.: 6,8 (2019an, 7,3)




Heltzen dauden konpostagailuetan
ere baloreak oso normalak dira. Ez
dago bestelako komentariarik.

BALOREAK


ALTUENA: 8 (2019an, 8)

BAXUENA: 5 (2019an, 6)

BATEZBEST.: 6,8 (2019an, 7,4)



Tenperatura baxuenak
konpostagailu txikietan eta altuenak
handienetan neurtu direla
azpimarratu behar da. Berez,
betetzen ari da konpostagailuen
aldaketaren helbururik nagusia
zen prozesuaren arintzea.




BALOREAK

ALTUENA: 58°C (2019an, 45°C)


BAXUENA: 13°C (2019an, 15°C)

BATEZBEST.: 30°C (2019an, 25,1°C)

Batezbesteko tenperatura (30°C)
ez da oso altua, baina kasu
batzuetan 45°C baino tenperatura
altuagoak neurtu dira eta hauek
nahiko onak dira.



Heltzen dauden konpostagailuen kasuetan, tenperaturak fasearen momentuarekin lotuta daude. Tenperaturarik handiena, adibidez, martxatik heltzera pasa berria zen batean neurtu zen. 6 hilabete eta gero, konpostagailu bereborean, 15°C neurtu dira eta ia heldua dago.




BALOREAK

ALTUENA: 51°C (2019an, 36°C)


BAXUENA: 11°C (2019an, 12°C)

BATEZBEST.: 21°C (2019an, $20,7^{\circ}\text{C}$)

Dispersioen grafikoan ikusten den bezala, baloreak askoz juntuagoak daude.



Oro har, hauek izan dira antzemandako arazorik nagusienak:



Martxan dauden konpostagailuetan bizidunik ez egotea arazo larria izan daiteke ornogabeek parte-hartze handia daukate eta. Prozesuko fase beroan normala da ornogaberik ez egotea tenperatura optimoa altuegia bait da izadi hauentzako. Bestelako faseetan, mantentze falta adierazten du.


Heltzen daudenetan, aurkakoa gertatzen da: bukaerako fasean badago normala da bizidunik ez egotea eta heltze fasea hasi berria badago, berriz, arazoa adierazten du.

Materia freskoa azalean egotea eta fruta eulia agertzea korrelazioan daude. Askotan aipatu den bezala, hau ez da konpostaje aurkako arazo bat baizik eta erabiltzaileenganako eragozpena. Dena den, askotan, materia freskoa ondo estalita ez egoteak egituratzaile falta pixka bat ere antzematen du.

Beste arazoak oso kasu gutxietan gertatu dira: usaina (%15a), karraskarien presentzia (%6,5a) ala zati handiak egotea (%10a), martxan dauden konpostagailuetan. Heltzen daudenetan askoz gutxiago antzeman dira. Karraskarien presentziarekin, gainera, kasu gehienetan, arrastoa (tunela) besterik ez da ikusi, ez animalia bera.

Arazo ohikoena “nahasketa gutxi” izan da: %49 (martxan) eta %18a (heltzen). Usainarekin eta karraskarien agertzearekin nolabait lotuta dago. Usainak nahasketa falta edota hezetasun handiegia adierazi dezake. Batzuetan, karraskariak konpostagailuaren barruan mugimendurik (aireztapenik) ez badago kabia sortzeko erosoago sentitzen dira.

Oro har, hauek izan dira proposatutako konponbideak:



MO: materia organikoa / EGIT: egituratzailea / EGIT + : egituratzailea gehitzea

+ ZATIKATU: zati txikiagoak egitea / + AIREZTATU: Maizago aireztatzea

Arazo gehienei aurre egiteko, normalean, konponbiderik onena ondo nahastea izaten da.

Horregatik, aireztatzea behin eta berriro eskatzen da: bisiten erdia baino gehiagotan, hain zuzen ere.

Materia freskoa estaltzea ere askotan eskatu da, batez ere materia freskoa azalean baldin badago. Horrela, euliak ez agertzea lortuko dugu.

Ekarpenak ondo zatikatuz prozesua arinagoa izatea lortuko dugu eta egituratzaile falta baldin badago, baliteke nahasketa hezeegia izatea eta, nahasketa faltarekin batera, usainak sor daitezke. Berez, noizbait egituratzailea gehitzeko ere eskatu da.

39.

Arazoak
(adibideak)



Materia freskoa azalean



Zati handiak



Egituratzailer ezegokia



Karraskarien agertzea



Eduki heldua



Tenperaturarik altuena (58°C)

42.

Praktika onak
(adibideak)



Ondo zainduta (handia)



Ondo zainduta (txikia)

... konpostajea prozesu AEROBIKOA
da eta oxigenoa behar du, emaiozue,
ondo nahastu!!

... hezetasuna konpentsatuta egon
behar dela, %50a ingurukoa.

...tenperatura egokia lortzeko,
materia freskoa eta mugimendua
behar du.

... nahiz eta heltzen egon, noizean
behin nahastu behar da!

Bisiten zehar, guneen egoera orokorra ere aztertzen da. Zerbait ezegokia ikusiz gero, Udaletxeari jakinarazten zaio



Tapa
hautsita



Egituratzailerik
falta



Guneen mantenimendu orokorra



-
1. LEZOKO AUZOKONPOSTA
 2. GUNEEN EGOERA
 3. KOMUNIKABIDEAK
 4. HOBKUNTZAK
 5. JARRAIPEN BISITAK
 6. 2021eko EGUTEGIA
 7. GOGORATU

8 jarraipen bisita gauzatuko ditugu,
hona hemen EGUTEGIA:

46.

OTSAILA / FEBRERO						
AL	AA	AZ	OG	OL	LA	IG
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28

APIRILA / ABRIL						
AL	AA	AZ	OG	OL	LA	IG
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

MAIATZA / MAYO						
AL	AA	AZ	OG	OL	LA	IG
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

EKAINA / JUNIO						
AL	AA	AZ	OG	OL	LA	IG
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

UZTAILA / JULIO						
AL	AA	AZ	OG	OL	LA	IG
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

ABUZTUA / AGOSTO						
AL	AA	AZ	OG	OL	LA	IG
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31	1	2	3	4	5

URRIA / OCTUBRE						
AL	AA	AZ	OG	OL	LA	IG
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

ABENDUA / DICIEMBRE						
AL	AA	AZ	OG	OL	LA	IG
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

*Osasun egoerak uzten bagaitu, bertan elkar ikusiko dugu!

Egutegi berria

-
1. LEZOKO AUZOKONPOSTA
 2. GUNEEN EGOERA
 3. KOMUNIKABIDEAK
 4. HOBKUNTZAK
 5. JARRAIPEN BISITAK
 6. 2021eko EGUTEGIA
 7. GOGORATU

Galderak, zalantzak, arazoak eta edozein komentariarik
baduzue, gurekin harremanetan jar zaitezke:



Whatsapp: 647 057 402



Posta elektronikoa: auzokonpostalezo@gmail.com



ESKERRIK ASKO KONPOSTAZALEAK IZATEAGATIK!!

LEZOKO AUZO
KONPOSTAJEAREN
JARRAIPENA. 2020ko
EMAITZEN AURKEZPENA